AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

483

1825/2011 EBAZPENA, abenduaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Olga Doiz Unzue andrea Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdeko Pertsonaleko zuzendari kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 22ko 5000/2009 Ebazpenaren bidez, Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdeko Pertsonaleko zuzendari izendatu zen Olga Doiz Unzue andrea.

Zuzendaritza Nagusi honek ikusi ditu ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak, eta

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Olga Doiz Unzue andrea Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdeko Pertsonaleko zuzendari kargutik kentzea, eta egin duen lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko abenduaren 16tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Gipuzkoa Mendebaldea Eskualdeari eta Giza Baliabideen Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.